

merkalan

Lanbideren enplegu eta formakuntza azoka
Feria de empleo y formación de Lanbide

Azoka birtuala:


2022eko ekainaren 20tik 23ra

Herritarrentzako plataforma irekia: ekainaren 13tik aurrera





LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak—Eusko Jaurlaritzako enpleguko politika aktiboak kudeatzen dituen erakunde autonomoak—Merkalan azoka antolatzen du. Merkan enplegu- eta prestakuntza-azoka da, non bai euskal enpresen, bai enplegu-eskatzaileen beharrizanak lotzen diren.



Zer da Merkalan

Merkalan Lanbideren III. enplegu- eta prestakuntza-azoka da. Azoka honek euskal enpresen eta gure lurraldeko enplegu-eskatzaileen beharrak bildu eta batzen ditu.

Batetik, Merkalan aukera bat da bai hautapen-prozesuak bateratzeko, bai langileen kontratazioa errazteko, bai eta beste enpresa batzuekiko lan-kidetza, sinergia eta sareak sortzeko. Baina, bestetik, Merkalan azoka babes handia ere bada enplegua bilatu edo hobetu nahi duten herritarrentzat.

Azken batean, harreman-puntu berria da enpresen (sektore publikoko zein pribatukoak) eta enplegu-eskatzaileen artean (hain zuzen ere, prozesuetara ailegatu, edo enplegua hobetu, edo enplegurako prestakuntza-eskaintza ezagutu nahi duten enplegu-eskatzaileak).



Nori zuzenduta dago Merkalan




EAEko **enpresei**. Zehazki, kontratazio- eta prestakuntza- beharrizan espezifikoak dituzten enpresak.



Prestakuntza-zentroen elkarteei. Bertan beren prestakuntza-eskaintza eta dagokion informazioa ezagutarazi ahalko dute (ziurtagiri-profesionalei buruz).



Enplegua bilatu edo hobetu nahi duten herritarrei. Azokan lan-eskaintzak kudeatuko dira. Beraz, sektore publikoko zein pribatuko langileek hautagaiak elkarrizketatuko dituzte.




Merkalanen helburuak



Hauen arteko **kontaktua sustatzea**: gure solaskide nagusiak, enplegu-eskatzaileak, azken ikasturteetako ikasleak, enplegua hobetu nahi duten langileak, enpresak, eta, azkenik, enplegua- eta prestakuntza-arloan lan egiten duten entitateak.



Bitartekotza bultzatzea. Enplegu-bila ari diren herritarren eta enpresen artean (enpleguari eta prestakuntzari dagokienez).



2022ko edizioa

Merkalan LANBIDEren enplegu- eta prestakuntza-azoka gisa finkatu da. Eta bertan biltzen dira, alde batetik, enpresen eta prestakuntza-erakundeen beharrak, eta, bestetik, enplegu-eskatzaileenak. Aurten Merkalanek bi edizio izango ditu. Lehenengoa ekainean izango da, formatu birtualean. Bigarrena, berriz, urrian izango da, eta jardun bikoia (aurrez aurrekoa zein birtuala).



Azoka birtuala

Azoka birtuala 2022ko ekainaren 20tik 23ra egingo da. Baina ekainaren 13tik uztailaren 13ra zabalik egongo da, www.merkalan.feriavirtual.com webgunean dagoen plataformaren bidez.

Aldez aurretik, maiatzaren 23an, parte hartzen duten enpresa eta erakundeetarako sarbidea gaituko da, beren standak konfiguratu ditzaten.



Gai-arloak

- Lanbideren informazio-gunea.
- Enplegu-eskaintza pribatuak zein publikoak.
- Enpresetarako zerbitzuak.
- Lanerako prestakuntza-eskaintza arautua.





LANBIDEREN INFORMAZIO-GUNEA

Informazio teknikoa emateko gune nagusia da, LANBIDEko langileek kudeatua. Bertan honako informazioa emango dute: enplegua bilatzeko eman beharreko urratsak; nola eman izena LANBIDEn; zer-nolako zerbitzuak eskaintzen dituen LANBIDEK; nola auto-kudeatu datu pertsonalak MiLanbideneten; curriculumak entregatzeko moduak.



ENPRESENTZAKO ZERBITZUAK

Informazio-gune honetan LANBIDEk enpresei eta ekintzaileei ematen dizkien bitartekaritza-zerbitzuei buruzko informazioa zabalduko da: enplegu-eskaintzak kudeatzeko modua, langileak kontratatzen eta prestatzen laguntzeko programei eta lerroei buruzko informazioa, etab.



ENPLEGU-ESKAITZA PRIBATUAK ZEIN PUBLIKOAK

Enpresek eta erakundeek stand propioak izango dituzte. Bertan **elkarrizketatuko** dituzte aldez aurretik argitaratutako enplegu-eskaintzetan izena eman duten pertsonak.

Halaber, honako informazioa ere zabalduko da bertan: enplegu publikorako deialdiak, eta nola sartu nazioarteko enpleguan EURESen bidez.



PRESTAKUNTZA

Lanbide Heziketako elkarteen eta Euskal Unibertsitateen prestakuntza-eskaintza. Gehi LANBIDEk eskainitako lanerako prestakuntza eta Profesionaltasun-Ziurtagiriak.





Nola hartzen dute parte enpresek

Ezer aurretik, enpresek parte hartzeko eskabidea aurkeztu behar dute, ekitaldiaren web-orrian: www.merkalan.eus

*parte hartzeko baldintzak ikusi.



2021eko edizioa bezala, aurtengo azoka online plataforma baten bidez gauzatuko da (web-orri baten antzekoa, baina interaktiboa). Plataforma hori erakusketarien eta bisitarien arteko topagunea izango da. Bertan 150 stand birtual jarriko dira, 4 pabiloi desberdinetan kokatuak.

Erakunde eta enpresa parte-hartzaile bakoitzak stand birtual bana izango du. Bertan bere burua ezagutaraziko du, informazioa emango, lan-eskaintzak argitaratuko, elkarrizketak egingo...; hori guztia joan-etorrien beharrik gabe, eta ingurune lagunkoi eta irisgarri batean. Horrela, klik bakar batean, balizko hautagai-zerrenda asko lortuko ditu.



Azoka birtuala

Merkalan Azokaren plataforma birtuala ekainaren 13an aktibatuko da publiko orokorrarentzat. Aldez aurretik, maiatzaren 23an, parte hartuko duten enpresetarako eta erakundeetarako sarbidea gaituko da, beren standak konfiguratu ditzaten.

Plataforma birtualean honakoa egin ahalko dute parte hartzen duten enpresek eta erakundeek:

- **STAND-AREN DISEINUA PERTSONALIZATU.** Parte hartzaile bakoitzak bere stand-a pertsonalizatu ahalko du. Horretarako plantillak izango ditu eskuragarri. Eta aukeratu ahalko du erakunde bakoitzaren irudiarekin bat datorren diseinua. Edo, bestela, stand bat “Ad hoc” diseinatu ahalko du.
- **HAINBAT INFORMAZIO ERAKUTSI.** Parte hartzaile bakoitzak bisitarientzako erabilgarria den edukia igo ahalko du; hala nola, enpresaren datu korporatiboak eta informazioa (logotipoa, harremanetarako informazioa, intereseko URLak, sare sozialak), eskatzen dituen langile-profilak, eskaintzak, produktuak, eta besterik.

Informazio hori bisitariak izango dute eskuragarri azoka irekita dagoen bitartean (ekainaren 13tik uztailaren 13ra). Halaber, informazioa uneoro eguneratu ahalko da, denbora errealean, klik bakar batez. Aparte, erakunde parte-hartzaile bakoitzak 10 profil izango ditu, eta aldi berean konektatu ahalko dira.

- **DESKARGAK TXERTATU.** Bisitariarentzako interesgarriak diren dokumentuak txertatu ahalko dira, deskargatu ahalko direnak (pdf, Word edo jpg formatuan).
- **BIDEOAK PARTEKATU.** Bideo korporatiboak partekatu ahalko dira (Youtube edo Vimeo bidez).
- **PARTE-HARTZAILEEKIN HARREMANETAN JARRI, TXAT BATEN BIDEZ.** Txat baten bidez, enpresak zuzeneko harremanetan jarri ahalko dira informazio gehiago eskuratu nahi duten bisitariekin (elkarrizketak taldeka zein bakarka izan daitezke).
- **MAILBOX.** Posta-mezularitza sistema honekin, partehartzaileek jakinarazpenak jasotzen jarraituko dute (nahiz eta konektatuta egon ez).
- **BILERAK EGIN.** Agenda partekatu ahalko dute, hitzorduak automatizatzeko. Horrela, bisitariak hitzordua aukeratu eta erreserbatu ahalko dute, beren lehentasunen arabera.
- **LEAD-AK KUDEATU.** Enpresek kontsultatu eta deskargatu ahalko dituzte standa bisitatu duten pertsona guztien datuak (gehi datuak sailkatu, iragazi eta esportatu).



BERARIAZKO ARAUDIA. NOLA HARTU PARTE ERAKUSKETARI GISA 2022KO MERKALAN-EN (ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA AZOKA), LANBIDE- EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK ANTOLATUA

1. Prestakuntza-Azoka) erakusle gisa parte hartzeko, alde zuzenetik, eskaera aurkeztu behar zaio ekitaldiaren Zuzendaritzari; eta honek onartu egin behar du. Eskaera eredu ofizialaren bidez egiten da, eta www.merkalan.eus web-orrian dago eskuragarri. Eskaera aurkeztean, eskatzaileak onartu egin du ekitaldian parte hartzeko araudi orokorra.
2. Parte hartzeko modalitatea erakusmahai birtuala da. Horretarako, parte hartzeko eskaerarekin batera, enpresek lan-eskaintza zehatzen zerrenda aurkeztu beharko dute (gehi eskaintza bakoitzeko lanpostuaren xehetasunak). Stand birtualaren bidez, enpresek enpresa-proiektua aurkeztuko dute gehi zein langile profila behar duten. (Zer egiten dugu? Zer proiektu ditugu? Zer behar dugu? Zer eskaintzen dugu?) Horretaz gain, informazioa hau ere eman ahalko dute: zeintzuk diren beren lan-taldean gehien eskatzen diren gaitasunak, enplegua bilatzeko aholkuak, zer prestakuntza behar den beren enpresako lanpostuak betetzeko...
3. Parte hartzeak ez du kosturik ekarriko, eta ez da fidantzarik jarri beharko.
4. Aurreko paragrafoak eragotzi gabe, ekitaldiaren Zuzendaritzak aukera izango du beste entitate publiko edo pribatu batzuk gonbidatzeko (beti ere entitate horien presentzia egokia bada ezarritako gai eta helburuen arabera).
5. Erakusketariari gune birtual bat erreserbatuko zaio, azoka birtualaren pabiloi batean, ekitaldiak dirauen bitartean.
6. Zuzendaritzak eskumen eksklusiboa izango du gune birtualak esleitzeko. Hala ere, ahal den neurrian, honakoak hartuko dira kontuan: enpresen sektore ekonomikoak, eskaera-data, espazioen arteko harmonia, eta ekitaldia hobetzen laguntzen duen beste edozein zirkunstantzia. Horiek horrela, tokia esleitzeko, oinarritzat hartuko dira eskatzaileak parte hartzeko eskabidean emandako datuak, gehi erregistro publikoetako eta LANBIDEren erregistroko datuak. Ekitaldiaren Zuzendaritzak ahalmena izango du enpresari esleitutako kokalekua eta baliabideak aldatzeko (salbuespenezko inguruabarrek hala eskatzen badute). Hala ere, erakusketariak ez du izango kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik.
7. Erakusketari bakoitzari esleitutako standak xede izango du, batez ere, erakundeak aurkeztea, lan-eskaintzak zabaltzea, txateatzea, balizko hautagaiak elkarrizketatzea, eskaintako lanpostuei buruzko interesa duten pertsonak atentatzea (nahiz eta alde zuzenetik zitarik ez izan). Aipatu lanpostuak alde zuzenetik argitaratuko dira, plataforma birtualean.
8. Azokan, enpresak bitarteko hauek izango ditu eskura, denak antolatzaileek emanak eta, beraz, doakoak:
 - Gune bat, plataforma birtualean.
 - Enplegu-eskaintzak argitaratzea.
 - Agenda, aurrez hautaturiko hautagaiekin.
 - Berariazko arreta, argitzeko ekitaldiaren aurretik edo bertan sor daitezkeen zalantzak

9. Partehartzailearen logoa txertatuko da bai plataforman bai ekitaldiaren berariazko webean (parte-hartzaile gisa).
10. Zuzendaritzak eskaera onartzen badu, parte-hartzaileak ondoko betebeharrak bete beharko ditu (osorik eta atzera egiteko aukerarik gabe): a. Esleitutako stand birtuala pertsonalizatu beharko du eta edukia gehitu. Aparte, gunea atenditu beharko du azoka bitartean (hain zuzen ere, gutxienez, hitzartutako elkarrizketak burutu beharko ditu; eta arreta emango du azokak irauten duen denboraren % 50an zehar). b. Ezin da hirugarren bati inolako eskubiderik utzi (partzialki zein osorik); salbu eta Zuzendaritzak aldeztu aurretiko baimen idatzia ematen badu.
11. Erakusketariak aurreko artikuluan adierazten diren betebeharrak betetzen ez baditu, edo emandako informazioa faltsua edo okerra bada, esleitutako edo okupatu gabeko lekuaren gaineko eskubideak galduko ditu. Leku hori ekitaldiaren Zuzendaritzaren esku geratuko da. Eta beste eskatzaile bati eskaini ahalko dio.
12. Era berean, debekatuta egongo da standaren mugetatik kanpo edozein publizitate- eta sustapen-ekintza egitea (salbu eta entitate antolatzaileak berariaz onartzen badu).
13. Plataforma birtuali edo Zuzendaritzari egotzi ezin zaion zernahi kausa dela-eta, deialdia bertan behera utzi behar bada, edo erakusketa-azalera murriztu behar bada, edo azoka-jarduera aldi baterako edo behin betiko, partzialki edo osorik eteten bada, edo ospakizunaren data aldatzen bada, erakusketariak ez dute kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
14. Jakinarazten dizugu ezen, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (2016/679 EB Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betez, enplegu-azoka egitearen ondorioz bildutako datu pertsonalak LANBIDEk tratatuko dituela, legeztan eman zaizkion botere publikoak baliatuz.

LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuak soilik bilduko ditu beharrezkoak diren eta gehiegizkoak ez diren datuak, bildu ziren helburuak betetzeko, eta betiere LANBIDEri legeztan eman zaizkion eskumenak betez.

Era berean, jakinarazten dizugu LANBIDEk, eman dizkiguzun datu pertsonalen segurtasunari eta konfidentziasunari eusteko, urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren II. eranskinean jasotzen diren segurtasun neurriak ezarriko dituela (dekretu horren bidez, Administrazio Elektronikokoaren esparruko Segurtasunerako Eskema Nazionala arautzen da).

Gure webgunean kontsultatu dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <https://www.lanbide.euskadi.eus/orokorra/-/informazioa/erabiltzeko-baldintzak-eta-segurtasun-politika/>



merkalan

Lanbideren enplegu eta formakuntza azoka
Feria de empleo y formación de Lanbide

Harremanetarako


Enpresa eta erakundeak:

Araba eta Gipuzkoa: 943 430 312

Bizkaia: 687 417 124

feriamerkalan@lanbide.eus

www.merkalan.eus



Lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO



EUROPAR BATASUNA
UNIÓN EUROPEA

Europako Gizarte Funtza
Fondo Social Europeo